

elkar

UDAZKENA 2014
37. ZENBAKIA
www.elkar.eus

*Idazle baionarrak
galdu nahi ez duen hatza*

ITXARO BORDA

+

KEN FOLLET

Colofón a la exitosa trilogía

EL BOOM DE LOS LIBROS DE AUTOAYUDA

Txani Rodríguez


IZEN

PROPIOAK:

Josu Martinez · Edurne Ormazabal · Mikel Markez
Alaine Agirre · Sergio Pereira · Patxi Zubizarreta



ZENTZUMEN GUZTIEKIN IRAKURTZEKO LIBURUAK



ITARTALO


ALGORTA (GETXO)

Telletxe 11
94 491 66 16

ARRASATE

Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA

Arsenal plaza
559 59 35 14

BASAURI

Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA

Ibargarai 12
943 76 40 50

BILBO

Licenciado Poza 14
94 443 47 08
Iparragirre 26
94 424 02 28
Zamudio ataria
Zazpikale
94 416 14 50

DONOSTIA

Fermin Calbeton 21
943 42 00 80
Fermin Calbeton 30
943 42 26 96
Bergara 6
943 42 63 50

GASTEIZ

San Prudencio 7
945 14 45 01
Apraiztarak 1
Campus
945 14 16 70

HERNANI

Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN

Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA

Comedias 14
948 22 41 67
Larraona z/g
Golem eraikina
948 17 55 38

TOLOSA

Arostegieta z/g
943 67 35 33

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ALDEKO FUNDAZIOA

Euskal Unibertsitatea sortzeko helburuz, 2008 urtean euskal kulturako zazpi eragilek Euskal Unibertsitatearen Aldeko Fundazioa eratu zuten. Proiektu honen sustatzaileak, AEK, Berria Taldea, Euskal Herriko Ikastolak, Ipar Hegoa Fundazioa, Kontseilua, UEU eta **elkar** Fundazioa dira.

Datozen erronkei aurre egiteko gizartearen formakuntza maila altuko ikasketak beharrezkoak direla uste osoan egonik, Euskal Unibertsitatearen Aldeko Fundazioak egungo beharretara egokitutako euskarazko Graduondoak eskaintzen ditu. Hala, Hondakinen kudeaketa eta tratamendua, Agroekologia eta Itzulpen gintza eta teknologia dira martxan jarri diren Graduondokoak.

Ekimen honen bidez, 2008 urtean hasitako bidea sendotu nahi da. Baina hau ez da azken urratsa, inondik ere. Euskal Unibertsitatea sortzeko proiektuak etorkizunari begirako beste zenbait helburu zehatz ditu: epe laburrean euskarazko formazio sendo eta zabala eskaintzeko, Graduiko ikastaroak antolatzeak asmoa dago.

Euskararen normalizazioaren bidean urrats bat gehiago da, hemen sortu eta gure errealitateari egokitutakoa. Ekintza hauen azken helburua euskarazko Proiektu eta Curriculum propioak sortzea da, non protagonista nagusiak diren ikasle eta irakasleek ardazkatuko dituzten egitura pedagogikoaren zuntzak.



Con el fin de crear Euskal Unibertsitatea, en 2008 siete agentes de la actividad cultural vasca pusieron en marcha Euskal Unibertsitatearen Aldeko Fundazioa. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea, Euskarazko Komunikazio Taldea, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Ipar Hegoa Fundazioa, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Udako Euskal Unibertsitatea y **elkar**

Fundazioa son los impulsores de este proyecto.

Con la firme convicción de que toda sociedad necesita un nivel de formación alto para hacer frente a los retos que se avecinan, Euskal Unibertsitatearen Aldeko Fundazioa ofrece una serie de posgrados en euskera adaptados a las necesidades actuales. Se trata de los posgrados de Gestión y tratamiento de residuos, Agroecología y Traducción y tecnología.

Mediante esta iniciativa se pretende afianzar el camino iniciado en 2008. Pero este no es el último paso. El proyecto de crear Euskal Unibertsitatea tiene otra serie de objetivos concretos de cara al futuro: existe también la intención de comenzar a organizar cursos de Grado a corto plazo, con el fin de ofrecer una amplia formación exclusivamente en euskera.

Este proyecto es un nuevo paso de cara a la normalización del euskera, un paso articulado desde aquí y adaptado a nuestra propia realidad. El objetivo final de estas actuaciones es crear un Proyecto y un Currículo propios en euskera, en los que alumnos y profesores sean los principales protagonistas que hilen las fibras de la estructura pedagógica.

Jarrai gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!
POSTDATA bloga
Ikusiena euskaraz:

- XIV. Augustin Zubikarai bekaren deialdia.
- Lander Garrori egindako *Gerra txikia* (Susa) liburuari buruzko elkarrizketa.

Lo más leído en castellano:

- Entrevista a Julio Vila sobre el libro *El Conquistador del Fin del Mundo* (Sua): "El libro recoge las anécdotas y entresijos que no se ven en pantalla".

- Sorteo de *El jardín de la luz de la luna* (Maeva) de Corina Bomann.

FACEBOOK
Biralitate handiena lortu duten euskarazko sarrerak:

- Elkar Estudioa Sesioak lehiaketaren bigarren fasearen deialdia.
- Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Pupu eta Loreren kartoizko lau liburu berri: *Pirritx umore*

zakurra, *Porrotx beldurtuta*, *Marimotots pazik* eta *Pupu eta Lore triste* (Elkar argitaletxea).

Contenido más viral en castellano:

- Convocatoria del concurso de El Mundo de los Pirineos *Reto 3000*.
- El juego de mesa *Inkognito* (Devir).

TWITTER @elkar
Interakziorik handiena eragin duten euskarazko sarrerak:

- Igor Calzadaren *Postindependentzia* liburuaren aurkezpena.

- Gerardo Markuleta *Poeta katalan garaiideak - Antologia* (Elkar argitaletxea) liburuak kaleratu du. Bertan, 9 olerkariren lanak euskaratu ditu.

Contenidos más interactivos:

- Entrevista a Marisol Bastida en la revista *elkar. Memorias. Una biografía de Mikel Laboa* (Elkar argitaletxea).
- Sorteo de *Desnuda* (editorial SM) de Jordi Sierra i Fabra.

Laura Norton
No culpes al karma
de lo que te pasa por gilipollas

Un libro para chicas con ganas de reírse... especialmente de sí mismas.

¿Todavía no has leído la novela más divertida del año?

ESPASA



ITXARO BORDA

ARGAZKIA: JUAN TXO EGAÑA



Itxaro Bordak *Zure hatzaren ez galtzeko* poema-liburua aurkeztu du. Ez berriena delako, egiaz hala iruditzen zaigulako baizik, olerki-liburu hau idazle baionarrak argitaratu duen biribilena da.

Zer da edo norena, galdu nahi ez duzun hatz hori?

Pertsona zehatz batena baino gehiago uste dut galdu nahi ez nukeen hatza bizitza soilarena dela, batzuetan iruditzen zaidalako egunerokotasunak guztia irensten, ezabatzen eta lehertzen duela. Jendetasunaren hatza, marka hori gure hitz, kultura eta jaiduretan, itsumandoka berreskuratzeko bideetarik bat izan daiteke poesia.

Maitasun istorio bat al da *Zure hatzaren ez galtzeko* honek kontatzen duena?

Bai, eta gainera ene ohiko amodiozko istorioa, berrogei urte hauetan irauten duena, huts egin gabe sekula, euskararekikoa dela hain zuzen ere. Masakratzen dut, gozatzen dut, infidela natzaio, baina hori dut beti hatz, buru zokoan, ezin ahanztu.

Euskararekin beste hainbat hizkuntza txertatu dituzu poema askotan, rock'n'rollaren erritmoak poesiaren hizkuntza berean.

2008 eta 2014a artean idatzi poemak dira, munduko leku ezberdinetan. Maite dut hizkuntzak euskararen isurian sartzea erakusteko euskara ez dela lur honetako mintzairaren biribilketatik kanpo geratzen. Laket zaizkidan rock edo kanta zatiak dira ingelesezko perpaus zenbait, islandiera, nahualtera eta gaelikoa halaber agertzen direla poeta omenez, gutarik hurbilagoak diren mintzairaz gain.

Asko gustatu zaigu "Bang Bang" poema. Imajina ditzagun Britney Spears eta Madonna zure poesia irakurtzen. Zer esango lukete egileari buruz?

Agian harrituko lirateke euskaraz idazten duen bat beraien lanari interesatzen zaiola ikustean. Madonna egia erran ez hainbeste, Kalaka taldekoak lagun

dauzkalako. Ziur aski bagenuke asko eta asko elkarri kontatzeko. Musikak faszinatzen nau txiki-txikitatik. Gabe ezin naiz bizi, izan Eztitxu, Beethoven ala Madonna.

'Arrotz intimoa naiz niretzat', diozu bertso bikain bakarrean. Une honetan, zein dira bizitzaren zentzuari eta niaren patuari ematen dizkiozun erantzunak?

Denbora pasatuagatik, oraindik ere guztia ikasteko dudala eta altxatzen den egun bakoitzean niaren patua arinduz, naif eginez aitzinatzen naizela pentsatzea bultzagarria zait. Idazten jarraituko dut neronekiko arrotz izango naizeno.

Zerk piztu du oraingoan zure hitzen ezinegona?

Egoera ekonomikoa pornografikoa iruditzen zait, tragikoa bereziki tragedia landu duen herriak olderik

latzena jasan duenean, ezin egonez utzi nau, hitzik gabe zenbaitetan.

Dena den, zurea poesia a-soziala dela diozu.

Erran nahi dut ideologia eta ele gabetua bezala doala ene poesia, jendartearen antzera, dolorea edo poza soilik eta biluzik azaltzeraino. Desertua denetara hedatua bailitzan.

Lekuek garrantzi handia dute, izan Euskal Herrikoak, izan kanpokoak, liburuaren barruan. 'Mapa mundia tatuatu dut begiaren zurian' diozu poemetako batean.

Euskaraz idatziagatik mundua da gure hausnar-lekua, ez gara mundutik kanpo bizi, gainera gaurko egunean, media ezberdinen bidez berriak, ardura gogorak, alde guztietatik jasotzen ditugunean. Poesiari esker kanpoko barneko bihurtzen da, eta alderantziz, distantziarik gabe sekula. Leku enblematikoak ere dira literatura mailan, bai eta maila pertsonalagoan ere.

Eta, zer esanik ez, izen-deiturak, hots, liburuak duen nortasunaren parte izatera gonbidatu dituzun bidaideak. 'Telepatia konplize', esaten diezu, ezin ederrago.

Poesia, eta nagusikiago literatura beti inguruarekin, inguruko kideekin, ezagun ala ezezagunekiko zorretan komitetzen da. Bakartasunik handienez idatzi arren, bada irakurle fantasmatik bat buruan eta harentzat izkiriartzen da lehenik.

"Emakumea izan arren, koiote lumadunak maite ditut" bertso zoragarria aurkituko du irakurleak. Nola landu behar luke gizarteak bere emetasuna?

Emetasuna errealitate irekiarekiko harremanetan lantzea premiazkoa litzateke. Emakumeok umeak, bikoitekideak, intimitate familia sexualak ditugu aipatzen. Nire perpausa lesbikoa da naski, Wittigentzat, adibidez,



ARGAZKIA: JUANXO EGAÑA

“Ideologia eta ele gabetua bezala doa ene poesia, jendartearen antzera”

lesbiana ez baitzen emazte bat. Politikaren alorra, ekonomiarena, biolentziarena jorratzera ausart gaitzen gizonen neurri berdinean.

Entzuna dizugu bakarrik lasterka egiten duzula, pentsatzeko eta idatziko duzun olerkiaren erritmoa sentitzeko. Erritmo bera al dute zure bizitzak eta zure literatura ibilbideak?

Kasik antzeko erritmoa dute. Literatura ibilbidearena agian enetzat egiazkoena delarik. Poesiaz edo nobelaz ez baldin bada, bizitza arruntaz ez dut asko kontatzekorik. Batzuetan iruditzen zait bizitza osoa, sentimenduak barne, literaturaren zerbitzuan jarri nituela hamalau urteetan euskaraz idazten eta publikatzen hasi nintzenean.

Zein dira poesiaren bitartez aurrera segitzeko kemena ematen dizuten zergatikoak?

Lasterketan bezala, luzaz neure buruaren aurka idatzi dut, baina liburu honetan bereziki alderantziz gertatzen zait: nire eta nirekin dabiltzan alde izkiriartzen dut, libertateaz, pozaz, bakeaz, elkartasunaz eta hala ere gerraz. Helmugara iritsiak garela sinestea eta inguruari zein norberaren bilakaera mutuari begiak eta bihotzak ixtea azken beltza litzateke. Bizirik gaudeno badira aitzinatzeko gogoia ematen duten akuilukadak.

Gu, baiezkotan gaude. Hau al da argitaratu duzun onena?

Bai hala dela uste dut, batez ere gaien eta irudien aldetik are globalizatuagoa delako, erromantizismotik urrun doalako eta malenkoniatik gutxi duelako. Hargatik, liburu berri bat plazaratzean uste da beti berriena dela hoberena, jantziarena, eraginkorra...

JOSE LUIS PADRON
Idazlea



Informazio gehiago:
<http://bit.ly/zure-hatzaren>

elkar ESTUDIOA SESIOAK

Urritik aurrera emanaldi gehiago
Adi Elkar Estudioko Sesioen bigarren zatiari!

elkar **hamaiika**

www.hamaiika.com

elkarestudioasesioak.com

EDURNE ORMAZABAL
Kazetaria-aurkezlea



Proposamena

LAS TRES BODAS DE MANOLITA

Imagino que como les ocurre a muchos de mi generación, me resulta inevitable relacionar el verano con la lectura. Recuerdo aquellos largos meses de julio y agosto de mi adolescencia en los que dedicaba horas y horas a leer todo lo que caía entre mis manos con una voracidad y una pasión propias de aquella edad y de unos tiempos que ofrecían muchas menos alternativas de ocio que los actuales.

Y aunque desde entonces la literatura ha sido una fiel y cotidiana compañía, afronto las lecturas de cada verano con una excitación renovada. Selecciono así títulos para los que he ido reserván-

dome con la certeza de poder dedicarme durante las vacaciones el tiempo y la atención merecida, sin prisas ni interrupciones. Entre las novelas que desde hace tiempo tenía pendientes, están las tres que la escritora madrileña **Almudena Grandes** ha venido publicando desde 2010 y que forman parte del ciclo "Episodios de una guerra interminable".

Hace ya unos días que terminé de leer la tercera entrega, *Las tres bodas de Manolita*, y aún me acompañan sus protagonistas: la inquebrantable Manolita, Antonio el guapo, su hermana Isabel, el fiel La Palmera, la bella Eladia, Silverio el manitas... Son personajes nobles,

fuertes, de una pieza, supervivientes (no todos) de un tiempo terrible. Algunos de ellos basados en personas reales, como el oscuro "El orejas" que recrea la vida de Roberto Conesa, joven militante de las juventudes del Partido Socialista que se pasó a la brigada social de la policía franquista, consiguiendo como infiltrado desarmar varias direcciones del Partido Comunista en los años cuarenta.

Historias que sorprendentemente han permanecido anónimas, y que hiladas con un mosaico de relatos de ficción, trazan un retrato doloroso de la guerra y la posguerra españolas.



LAS TRES BODAS DE MANOLITA
Almudena Grandes
TUSQUETS

Profila BENITO LERTXUNDI

HORI ETA ASKOZAZ ERE GEHIAGO



MIKEL MARKEZ
Musikaria



Benito Lertxundi: ezer desiratzeko ez duen jendeak liluratzen duen gizakia, Bob Dylanekin kantatzeari uko egin zion kantaria, ahal duen guztietan jende artetik ihes egiten duen gizona. Zuberua animalia miresgarri bat bezala miresten duen gipuzkoarra, Johann Sebastian Bach konpositorearen aurrean makurtuko litzatekeen sortzailea, diskoen aurkezpen prentsau-

rrekoek alergiaz sorrazten dioten pertsonaia publikoa.

Benito Lertxundi: arkatzarekin bezala pintzelarekin margolari bikaina, erloju konpontzailetza kantagintzagatik aldatu zuen tximinia izpirituala, lehen kontzertuetan kantatzera Valium 10 hartuta ateratzen zen herabea. Krishnamurtiren orrialde baten sarean kateaturik hilabe-

teak gelditu zen armiarma, elizkoia izan ondoren jainkoa bere kasa erortzen utzi zuen gazte argitsu.

Benito Lertxundi: desikastearen garrantziaz konturatu zen ikaslea, emakumea gizaki misteriosua dela dioen gizona, askatasuna, maitasuna, inteligentzia eta heriotza gauza bera direla praktikatzeko duen gizakia. "El bardo de Orio", "El bor-

de de Orio" edo "El barco de Orio", kaprikornio peto-petoa, Orioko tabernetan bere musika kentzen dute sartzen den bezain pronto.

Benito Lertxundi: kantu zaharren biltzaile eta hedatzailea, kantu berriak herrikoiegi- teko gaitasuna duen sortzailea, politikak aspertzen badu ere ia beti politikaz hizketan amaitzen duen sumendia. Egunero hiltzen eta birsortzen den Fenix txoria, Oria ibaia bere bikia dela dioen zilarrezko arraina, Orioko elizako eskaileretako munduko errekorra 11:90ean duen atleta.

Benito Lertxundi: entrenamendu garaian arraunlarientzat paisaiaren zati, sexua egiten ez bada gaixotasuna etortzen dela dioen sendagilea, arbola, itsasoa eta harria ere badela dioen lainoa. Sentibera, gauza baliotsuen ehiztaria, kalte egiten dion edozeren suntsitzailea, kantuak oharkabean etortzen zaizkion tximistorratza.

Benito Lertxundi: Iron Maiden Heavy taldekoren idoloa, kultura, arazoaren jatorriari antzemateko ahalmena dela dioen filosofoa, pentsamendua eta hizkuntza denbora direla dioen eternitatezko haizea. Guztia guztiaz egina dagoela dioen gizon sentzi- lloa, eszenatokian txistuak entzun zituen euskal kantari arrakastatsua, bere iritziekin zer pentsatua ematen duen lurrikara.

Benito Lertxundi: hori eta askozaz ere gehiago!

· flashback ·



KATIXA AGIRRE DAZLEA



DAVID CRONENBERG, EZINEZKO MISIOA

Egia ote da, **Harkaitz Canok** zioen bezala, idazle guztien asmoa ezin egokitu daitekeen liburu bat idaztea dela? Bada, **David Cronenberg** zuzendari kanadarrarekin asmo hori ia eskuraezina bihurtzen da. Eleberri edo ipuin batek inadaptatlea baldin badirudi, hara doa David kontrakoa frogatzera.

The Dead Zone (1983) arrakastatsurekin hasi zuen egokitzapenen karrera, **Stephen King**en izen bereko eleberria oinarritzat hartuta. *The Fly* (1986) pelikulan, berriz, Cronenbergek **George Langelaan**en izen bereko ipuina adaptatu zuen, istorio gordinago bat taxutuz: protagonista intsektu bihurtuz doa, eta metamorfosia gaixotasun suntsitzaile moduan agertzen da pantailan. Ipuina, berez, *Playboy* aldizkarian agertu zen 1957ko ekainean, eta gaztelaraz irakurri nahi duenak *La Mosca. Relatos del Antimundo* bilduman (Noguer y Caralt, 1987) topatu dezake.

Zailago oraindik, pentsatu zuen David Cronenbergek halako batean, zergatik ez dut **William S. Burroughs** lisergikoaren *The Naked Lunch* (gaztelaraz *El almuerzo desnudo*, Anagrama) egokitzen? Haluzinazio farmakologikoak, munstro humanoide nikotina-zaleak eta idazmakina hizlariak oso ondo geratuko dira pantailan, noski. Esan eta egin, 1991n estreinatu zen pelikula, eleberria ez ezik, **Burroughs** beraren bizitza ere oinarritzat hartzen duena, koktel metatestual bezain interesgarria lortuz.

Crash (RBA libros), **J.G. Ballard**en 1973ko kultuzko nobela, "pornografia teknologikoko aurreneko eleberria" kontsideratu izan da. Etiketa horrekin, Cronenbergren arreata deitu behar

zuen goizago edo beranduago. Auto-istripuek eragindako zauri eta anputazioak kitzikatze sexualaren eremu bihurtzen dira eleberri honetako protagonistentzat. Kontuz beraz: pelikula honek, 1996koak, ez baitauka zerikusirik urte batzuk geroago hainbeste *oscar* irabazitako izen bereko filmarekin.

Hortik aurrera, Cronenbergek albo batera utzi zituen gorputz fisikoaren eraldaketa eta suntsiketa, eta tara mental eta psikologikoak jorratzeari ekin zion. *Spider*, **Patrick McGrath**en 1991ko nobela (gaztelaraz, izenburu berarekin, Debolsillok atera zuen 2006an) 2002an pantailaratu zuen, **Ralph Fiennes** aktore britainiarrak zoroetxetik atera berri den pertsonaia ezegonkorra gorputzu zuelarik.

Eleberriak ez ezik, nobela grafikoak ere adaptatu ditu zinegile kanadarrak. 2005ean *A history of violence* bikaina utzi zigun, **John Wagner** eta **Vince Lockeren** komikian oinarrituta (gaztelaraz *Una historia violenta* izenburuarekin argitaratu zuen Panini Noir argitaletxeak).

Azken bolada honetan, 2012an, itxuraz sinplea baina egiaz adaptaziorik konplikatuena izan daitekeena burutu du Cronenbergek. **Don Delillo**ren *Cosmopolis* (Booket), zeinetan ez den itxuraz ezer gertatzen: exekutibo gazte bezain arrakastatsuak limusina bat hartzen du ilea moztera joateko. Manhattan zeharkatzen duen bitartean, limusinan jasotzen dituen bisiten bidez eta egiten dituen geldialdiei esker, gizarte gaixo baten sintoma guztiak erakusten zaizkigu guri, irakurle zein ikusle.

KEN FOLLETT EL UMBRAL DE LA ETERNIDAD



Más de 2.000.000 de lectores esperan el desenlace de la trilogía The Century



PLAZA JANES
www.kenfollett.es

SI ME NECESITAS, lee

Los últimos tiempos, exigentes, frustrantes, confusos y nerviosos, han convertido los libros de autoayuda en grandes éxitos de venta

Solos no nos bastamos. Vivimos momentos tendentes al desasosiego. La Organización Mundial de la Salud advierte de que la gran plaga del siglo XXI es la depresión. Por otro lado, los trastornos afectivos prevalecen, y la angustia encuentra en las adicciones puertas falsas con las que no parece difícil darse de bruces. La infelicidad, como bien diagnosticó Tolstoi, adopta mil formas y cada quién la vive a su manera: desamor, frustración, ansiedad... A este estado de ánimo social hay que añadir que vivimos con las palabras emprendedor y éxito puestas en la boca y que fracasar es un verbo que no combina con las expectativas generales. Si agitamos todos estos elementos, encontraremos la respuesta al hecho de que un gran número de libros de autoayuda se hayan convertido en auténticos *best sellers*. "Si precisas una mano, recuerda que yo tengo dos", decía San Agustín. No añadió nada sobre pasarse por alguna librería, pero son muchos quienes lo hacen. En los estantes y mesas de novedades, la oferta es amplia. Uno de sus protagonistas es el ultrafondista y *day trader* de Bolsa, Josef Ajram, que anima en su libro *No sé dónde está el límite pero sí dónde no está* a no decaer ante los reveses. Para este deportista, la vida son dos días, "así que en lugar de quejarse, más vale levantarse y volver a intentarlo con más fuerza". Javier Iriondo, en cambio, se sirve de la ficción para confeccionar *Un lugar llamado destino* y hablar de la forma de superar dificultades

y enfrentar dilemas. *El cociente agallas: sé valiente, cambia tu vida*, de Mario Alonso Puig, aconseja salir de la zona de confort, de aquello que nos es conocido y familiar, para adentrarnos a explorar un nuevo territorio, el de nuestro auténtico potencial. De la actitud positiva nace también *Psicohigiene: el cuidado de uno mismo y de los demás*. Javier Urra propone planificar con alegría un futuro prometedor. Este psicólogo, de abultado currículum, insiste en que impregnarse de otros es fundamental para dar sentido a las cosas, a la existencia, para dinamizar nuestros sueños. Compañero de profesión de Urra es Giorgio Nardone que, al parecer, ha dado en la diana con *Psicotrampas*. Este trabajo identifica maneras de actuar negativas que a menudo - mantiene - son fruto de mecanismos psicológicos que, finalmente, impiden la resolución de problemas. Sobre no agobiarse demasiado habla también Rafael Santandreu en *Las gafas de la felicidad: descubre tu fortaleza emocional*. Este

psicólogo sugiere soluciones para superar los problemas que dificultan la vida de tantas personas y para perder posibles miedos. Se trata de una senda que ya exploró en *El arte de no amargarse la vida*. Ausartu zaitez, de Juanjo Lertxundi - el primer libro de este género escrito en euskera - anima a los lectores a que conviertan sus sueños en realidad y encontrar sus propios caminos.



MÁS DE 5 MILLONES
DE EJEMPLARES VENDIDOS

#ADICTIVO

JO NESBØ

EL LEOPARDO

Síguenos en
www.rojaynegra.com

f t

Roja & Negra



ILUSTRACIÓN: JOSEAN MORLESIN

Un auténtico éxito de ventas ha sido *El poder del ahora*, de Eckhart Tolle, un trabajo que mantiene que sí hay una forma de salir del sufrimiento y de alcanzar la paz. A los veintinueve años, el autor experimentó una profunda transformación espiritual que cambió el rumbo de su vida y que comparte con sus seguidores. Sobre el devenir de la existencia mantie-

ne una teoría muy concreta, y curiosa como mínimo, Robert Schwartz, en *El plan de tu alma*. Este trabajo sostiene que las experiencias más dolorosas y difíciles de la vida las hemos planeado cuidadosamente nosotros mismos antes de nacer.

Como ocurre en la literatura, en la autoayuda también nos encontramos con autores o autoras que encadenan un éxito con otro. Es el caso, por ejemplo, de la filósofa Elsa Punset. Su anterior trabajo, *Una mochila para el universo*, arrasó. Su nuevo libro, *El mundo en tus manos. No es magia es inteligencia social*, donde aconseja cómo conectarnos con los demás en una sociedad cada vez más interconectada, va por el mismo camino. O el afamado terapeuta y autor argentino Jorge Bucay, que este verano ha presentado su última obra, *Rumbo a una vida mejor*.

La autoayuda, no obstante, aborda todo tipo de temáticas. *Tranquilos y atentos como una rana* ilustra esa variedad. Este libro, escrito por Eline Snel y traducido a distintos idiomas, da unas pautas dirigidas a que los niños se concentren mejor en lo que hacen, se calmen, se relajen e incluso concilien mejor el sueño. El sexo o las relaciones personales son, asimismo, objeto de análisis en libros como *Quiero una cita, el día que fui a la sexóloga*, de Begoña Labayen o en *El buen amor en la pareja. Cuando uno y uno suman más que dos*, de Joan Garriga.



TXANI RODRÍGUEZ
Escritora



LLEVATE UN FIN DE SEMANA GRATIS

en una casa rural + una MOCHILA TERNUA si regalas
una suscripción a la revista

EL MUNDO DE LOS PIRINEOS

Entra en www.elmundodelospirineos.com



ALAINE AGIRRE

Haur literaturan zenbait ipuin plazaratu ostean, helduentzako lehen liburuarekin dator Alaine Agirre (Bermeo, 1990): *Odol mamituak*, indar eta edertasun handiko eleberria, irakurlea astintzeko gaitasuna duena.



ARGAZKIA: JULENE MENDIOLA



ODOL MAMITUAK
Alaine Agirre
ELKAR



Joan-etorriko bidaia bat kontatu duzu: emakume gazte baten gaixoa, psikikoa, psikiatrikoan egonaldia eta ondorengo osatzea. Zergatik gai hori?

Gai ezkutu bat dela uste dut. Bai arazo sozialez bai intimoen lasai mintzatzen gara, gaixotasun baten xehetasunak ere kontatzen dizkiegu lagun eta ezagunei, baina, gaitz mentalei dagokienez, isildu egiten gara. Eta hor daude, hala ere, lurperatuta. Jende asko da bere bizitzako aldiren batean halako gaitzen bat eduki duena. Adituek diotenez, hirutik batek eduki du, dauka edo garatuko du noizbait gaixotasun mental bat.

Bereziki gogorra gertatzen da eromen prozesua, infernura jaiste bat bezala; nahita bilatu duzu efektu hori? Errealitatearen isla da?

Nobelaren hasiera nik pasatako ilunaldi batean dago oinarrituta, eta kontatzen diren sententzioak, lehen partean batez ere, nik bizi izandakoaren oihartzun bat dira. Gogortasuna ez dut nahita bilatu, baina egia da, esan didatenez, irakurle askori gordina iruditut zaiola. Hala ere, errealitatean horrelako esperientzia bat beti izango da gogorragoa paperean agertzen dena baino.

Gogortasun horrekin kontrastean, badira umore printzak han-hemen, baita samurtasun keinuak ere...

Aldez aurretik planeatu barik irteten dit horrela. Protagonistak bere buruari barre egiteko gaitasuna du, baita kariñoa agertzeko ere. Hori beti da ona, eta gehiago horrelako egoera batean. Nik ere ikasi beharko nuke nobelako protagonistarengatik horrela jokatzeko.

Intentsitate handia lortzen duzu, idazkeraren bitartez sententzio fisiko eta emozional muturrekoak transmitituz.

Istoria hau horrela idatzi behar nuela sentitzen nuen, ez hotzean erabakita baizik eta intuizio hutsez. Ni hustu egin naiz idaztean, eta poztan naiz indar hori jasotzen baldin bada irakurtzean.

Aldi berean, edertasun estetiko handiko une gorenak eskaintzen dituzu.

Beti gustatu izan zait berbekin jolas egitea; haien musikaltasunaren arabera aukeratzea, berba bakoitzak zer kolore ekartzen didan burura... hitz bakoitzaren zentzuaz haratago niretzat daukan konnotazioa hartzen dut kontuan. Onerako zein txarrerako, behar bat da niretzat, obsesio bat ia.

Lehen pertsona, bigarrena eta hirugarrena ere tartekatzen dituzu narrazioan zehar. Sen hutsez? Helburu jakin batekin?

Hasieran intuizioz hasi nintzen bat edo beste aukeratzen, baina gero konturatu nintzen bazegoela logika bat: bigarren pertsona erabili dut protagonista errealitatearen mugetatik kanpo dagoenean; lehenengo, gaixotasunak inbadituriko bere eguneroko bizitza kontatzeko; eta hirugarrena hortik irteten hasi deneko harremanak distantzia batetik kontatzeko.

TERESA LARREA
Kazetaria



Informazio gehiago:
<http://bit.ly/odol-mamituak>

Arantzak barrurantz
Xabier Mendiguren Elizegi

Zure hatzaren ez galtzeko
Itxaro Borda

Harrian mezua
Alberto Ladron Arana

bizi literatura

ebook-ean ere bai!

elkar

www.elkarargitaletxea.com



Agendas y calendarios 2015 365 egun paperean



Informazio gehiago:
<http://bit.ly/elkarpaper>

Vamos llegando al final del año y es momento de hacernos con agendas y calendarios de 2015. Para la buena marcha de nuestro día a día es vital acertar con los que mejor se ajustan a nuestras necesidades y estilo de vida. En las librerías **elkar** encontrarás gran variedad de materiales, tamaños, diseños y contenidos: calendarios de tres años, calendarios lunares, con recetas de cocina, santoral, refranes, agendas a día o semana vista, dietarios...



Agendas profesionales *Finocam*

Son agendas de año natural para ejecutivos, normalmente de piel o de materiales sintéticos pero nobles. Suelen venir con anillas y permiten organizar el interior de acuerdo a las necesidades. Se sustituyen las hojas anualmente, y estas ofrecen múltiples opciones además del calendario: las hay blancas, con cuadrícula, para teléfonos, direcciones y e-mails, con mapas, etc.



Egutegiak *Legami*

Aukeratzeko sorta handia dago, bai mahai gainerako baita paretan ipintzeko ere. Modelo eta tamaina ugari ditugu aukeratzeko, irudi eta gai ezberdinekin, bulegoan nahiz etxean erabiltzeko.

Tacos calendario *Ingraf*

Los tacos de mesa son calendarios que nos permiten ubicarnos con un solo vistazo. Algunos son temáticos y otros tienen citas, refranes, pasatiempos, el santoral... Cada hoja representa un día del año que vamos pasando y arrancando. Pueden ir sobre un soporte de mesa y se sustituyen anualmente.



Eskolarako agendak *Oxford*

Irakasle eta ikasleentzako oinarritzko lan tresna da eskolarako agenda. Ikasturteko egutegia izaten dute, hau da, irailean hasi eta uztaila bitartekoa. Eskolako ordutegia, azterketen egunak, oporraldiak eta abar jasotzen dituzte gehienek. Astea edo eguna erakusten duten orrialdeak daude aukeran, baita guraso eta irakasleen arteko komunikazioa bideratzeko zenbait orrialde eskaintzen dituztenak ere.



Dietarios *Myrga*

Los dietarios son agendas de año más corrientes, que se utilizan en empresas u oficinas para anotar ingresos y gastos. Suelen tener formato de libro o espiral y los hay con muchos soportes y contenidos.



ALEX ORBE

LASTER liburu-dendan...

✂ **Elkar** argitaletxean helduko diren batzuk: **Ana Urkizaren Mamuak** ipuin-bilduma, **Garazi Kamio**ren *Orube abandonatuak* eleberria eta **John Andueza**ren *Prime-Time* thrillerra. Baita **Jules Verner**en *Michel Strogoff* eta **Joseph Conrad**en *Ilunpeen bihotzean* ere.

✂ **Pamielak Arantxa** Urretabizkaiaren eleberria dakar udazkenerako: *Zuri-beltzeko argazkiak*. Bere haurtzaroko hainbat bizipen jasotzen ditu bertan. **Bernardo Atxagaren** liburu labur bat ere ekarriko du argitaletxeak

dendetara, Lawrence of Arabia pertsonaiaren inguruan. Baita **Joseba Sarrionandiaren** *Izuen gordelekuetan* barrenaren edizio zuzendu eta eguneratua ere.

✂ **Alfaguara** publica *Alabardas*, la novela inacabada de **José Saramago**. Su publicación se realizará en portugués, español, catalán e italiano.

✂ **Susa** argitaletxeak **Mikel Peruaren**aren *Su zelaia*ak, Lehen Mundu Gerrari buruzko nobela argitaratuko du. Baita **Jose Luis Otamendiren** *Kapital publikoa* poema liburua ere.

✂ En octubre, **John Gri-sham** llega con *La herencia*, de la mano de **Plaza & Janés**. **Dolores Redondo** cierra en noviembre su trilogía del Baztán con *Ofrenda a la tormenta*, editado por **Destino**.

✂ **Tarttalo** planea publicar: *El hueso que todos quieren roer*, de **José Luis Abásolo** y *ETA, de cabo a rabo: relato*, de **José Félix Azurmendi**.

✂ Haur eta gazteentzat ere badatzo nobedadeak. **Elkar**-ek **Ramon Olasagasti**, **Leire Bilbao**, **Patxi Zubizarreta** eta **Esti Vivancoren** lanak kale-


ratuko ditu urteko azken hilabete hauetan. Baita **Joan Mari Irigoien**en *Pistolak eta epistolak* ere.

✂ Después del anterior éxito, el cantautor **Lluis LLach** vuelve con su nueva novela *Las mujeres de La Principal*, de la mano de **Seix Barral**: la saga de tres mujeres valientes marcadas por un crimen.

✂ Udazkena girotzeko musikarik ere bada bidean. Urriari **Gose** taldeak *Gosariak* lan berria kaleratuko du **Jangura** *produkzio*ak eskutik. Letrak **Joseba Sarrionandiaren**ak


izango dira. **TX diskak** zigiluak, berriaz, **Lou Reeden** ezohiko bertsioen diskoa iragarri du: *Milesker*. Euskarara itzulitako hamar kantaz osatutako omenaldi diskoa da, musikari handiek interpretatuak.

✂ **Anne Etchegoyen**-ek *Ongi etorri* diskoa argitaratuko da **Elkar** diskoetxearen eskutik. **Ruper Ordorikaren** lan berria ere labean dago. Eta **Gaztelupeko hotsak** zigiluak haurrei zuzendutako liburu-diskoa dakar. Bertan **Joseba Tapia** eta **Maialen Lujanbiok** hartzen dute parte.



Pauline A. Chen
El ENSUEÑO del PABELLÓN ROJO

Una fascinante saga familiar en la China del siglo XVIII



JOSU MARTINEZ

Erreportaje sorta zirrargarri bat egin du Josu Martinezek, etakideak partaide izan diren ihesaldi edo ihes-ahaleginak kontatuz, kronika periodistikoaren eta abenturetako eleberriaren teknikak uztartuz, Tene Mujika bekaren laguntzaz.



**TUNELAK, IZARAK,
MOZORROAK
ETA BAFLEAK**

Josu Martinez
ELKAR



Kartzeletako ihesak txikitatik maite dituzula kontatu duzu lan honen sarreran. Baina noiz bururatu zitzaizun liburu honen ideia, eta nola joan zen burutazio hori forma hartzen?

Ihes egitea gauza ederra dela, esan beharrik ere ez dago. Denok egin dugu nonbaitetik ihes noizbait, ametsetan bada ere; hain justu, ihes egitea, nahi duzun tokira joatea delako. Liburu honi dagokionez, nik uste dut aspalditik izan dudala buruan ideia bueltaka. Norbaitek ihesaldi baten istorioa kontatzen zidan bakoitzean, *“To! Hori liburu bat egiteko modukoa da!”* pentsatzen nuen, baina gero, agian, *“Barrura Begiratzeko Leihoak”* filma egin genuenean hasi zen asmo hura forma hartzen. Dokumentazio lana egitean zenbait ihesaldi saiakeraren berri izan nuen eta momentu batean iruditzi zitzaidan, haietako dozena bat kontatuta bilduma polita osatu zitekeela. Garaitu horretan bidali nuen liburu-proiektua lehenengoz Tene Mujika bekara; eta hurrengo urtean jaso nuen saria.

Kapitulu askotan, kontatzen den ihesaldia abentura bat da, baina horko protagonistengana iristea beste bat, ezta?

Bai. Ihesaldi (edo saiakera) baten berri daukazunetik protagonistarengana heldu eta hark bere bizipenak konpartitzea onartzen duen arte, bide luzea izaten da sarritan. Bereziki, harekiko kontaktua ez bada erraza (giltzapean dagoelako, desagertuta, edo dena delako arrazoiengatik). Horregatik, kasu batzuetan, istorioaren bilaketaren istorioa ere integratu dut kontakizunean; neure burua ere pertsonaia gisa sartuz; irigarria egiten zitzaidalako prozesu guztia nola gertatu zen eta kasik detektibe Mortadelo bat bezala sentitzen nintzelako.



Berezia da liburuari eman diozun tonu alai, jostaria; kartzela barruko bizi-baldintza gogorrekin kontrastea egiten duena.

Eskerrik asko. Esan bezala, gaiak eskatzen zidan bezala egin dut. Hala ere, lagun artean gaudenez aitortuko dizut, nire ustez ez dudala balio drama idazteko.

Zuk zinema ere egin duzu: ez zaizu burutik pasa ihesaldi hauetako bat edo besterekin dokumental bat edo fikziozko film bat egiteko aukera?

Bai, askotan. Istorio gehienekin, pelikula ederrak egin litezke. Baina ez ditut nik egingo. Burua beste gauza batzuetan daukat honezkero, eta gaiz aldatzeko gogoia daukat.

“Garai, adin, jatorri, sexu, militantzia, ihes-molde eta abarren arabera, ahalik eta bilduma anitzena egiten saiatu naiz”

Zuk zeuk esana duzu ez daudela hemen jaso zitezkeen istorio guztiak; hainbat arrazoi izango ziren tartean beste batzuk baztertzeko; alde batera uzteak pena berezia eman dizun kasurik bai?

Jakinik ere ezinezkoa zela, saiatu naiz, ihesen aukeraketa egiterakoan, zenbait irizpide errespetatzen; garai, adin, jatorri, sexu, militantzia, ihes-molde eta abarren arabera, ahalik eta bilduma anitzena egiteko. Bistan denez, ez dut ekuanimitaterik lortu, inposiblea zelako. Batzuei gustatuko zaie egin dudana hautaketa eta beste batzuei ez. Nik garbi daukat istorio polit piloia gelditu dela kanpoan; eta

zuzenean galdetzen didazunez, esango dizut, badela bat bereziki pena handia eman didana kanpoan uztea. Idatzita neukan, argitaratzeko prest, baina protagonistari arazo judizialik sor ez zekion, azkenean ez argitaratzea erabaki genuen. Momentuz. Liburuaren bigarren edizio bat badago, agian hamar istorioen ordez, hamaika izango ditu liburuak.

Nolakoa izan da ihesaldien protagonistekin kontaktuan jartzeko bidea? Eta haiekiko harremana? Pasadizoren bat kontatzeko?

Harreman goxoa izan dut protagonistekin beti. Saiatu naiz konfiantza transmititzen eta haien bizipenak ahalik eta errespetu handienarekin tratatzen, eta horregatik, testuen zirriborroak erakutsi dizkiet, zuzenketak egiteko aukera emanez eta. Azken finean, norbere bizitzaren parte oso pertsonal bat kontatzera zoaz, eta inportantea da haiek gustura sentitzea emaitzarekin. Bide horretan, anekdota asko gertatu dira, noski, baina kontatzeko nituenak, liburuan agertzen dira.

Gonbidatu berezi bat ere izan duzu; zertaz da liburuaren epilogo?

Bai. Plazer handia hartu nuen Joseba Sarrionandiak libururako epilogoia idatziko zidala jakin nuenean. Esan zidan, liburuko tonu umoretsua asko gustatu zitzaiola, eta tonu berdineko zerbait idazten saiatuko zela. Baina gero, beste zerbait idatzi du; askoz sakonagoa. Badakizu. Berak esango lukeen moduan, txoriengandik zuk zerbait espero duzu... *“Baina txoriak zuregandik, beti ihes doaz”*. Bromak alde batera utzita, oso pozik nago epilogoarekin, eta uste dut oso ondo borobiltzen duela liburua.

TERESA LARREA
Kazetaria

Informazio gehiago:
<http://bit.ly/tunelak-izarak>



SERGIO PEREIRA

El pasaitarra Sergio Pereira se estrena en el panorama literario con una novela histórico-policiaca ambientada en la San Sebastián de la posguerra, en la que se entrecruzan asesinatos, exiliados políticos, amores truncados o cazadores de nazis.



LA MEMORIA DE LAS SOMBRAS
Sergio Pereira
TTARTALO

La memoria de las sombras es el título de tu primera novela, una novela con historias entrecruzadas, mucha intriga, trepidante, llena de misterio, asesinatos y amores, ambientada en la Donostia de la posguerra. ¿Dónde y cómo surge esta novela?

Primero quisiera puntualizar que la novela está ambientada entre Donostia y Pasaia, como buen pasaitarra que soy. Las historias de intriga y misterio me han atraído desde pequeño, tanto en la literatura como en el cine, y esta novela surge del afán de querer escribir mi propia historia de suspense, ambientada en escenarios que conozco y en una época en la que nuestros mayores han tenido que vivir. No sabría decir exactamente cómo comenzó a surgir la historia en sí, pero sí que fue el resultado de mezclar las intrigas ficticias que yo me imaginaba con las historias de la época que he escuchado contar a mis aïtonas.



“Creo que tanto Pasaia como Donostia, Hondarribia, Irun, Oiartzun, Errenteria y alrededores son zonas cargadas de historia y llenas de escenarios para novelas”

La novela ambienta una Donostia de familias bien, que viven entre las villas de la falda de Igeldo y del Paseo de Francia, sin estrecheces, y el contraste con las familias perdedoras de la guerra, residentes en Pasaia. ¿Por qué la posguerra y por qué en Donostia y Pasaia?

La historia es otra de mis grandes aficiones, más aún cuando trata de mi pueblo y sus alrededores, lo que me llevó a querer enclavar la novela en un lugar y momento concretos. Si he elegido la posguerra es porque, como

recurso literario, la oscuridad e inestabilidad de aquel momento se me hacían idóneas para la trama de intriga y misterio que quería contar. Por otra parte, creo que tanto Pasaia como Donostia, Hondarribia, Irun, Oiartzun, Errenteria y alrededores, son zonas cargadas de historia y llenas de maravillosos escenarios para diferentes tipos de novelas, apenas explotados literariamente.

Entre medio, un amplio abanico de personajes y de sucesos. Haznos un pequeño resumen de la trama.

El protagonista principal es Martín, un joven vecino de Pasaia, hijo de un fugitivo del régimen franquista, que se ve ante la oportunidad de trabajar como secretario de un escritor de éxito que vive en una villa de Igeldo y granjearse así un futuro mejor. Allí conocerá a Isabel, hija de un coronel franquista. En medio, un oscuro e impredecible inspector de policía, marcado por el odio y la obsesión hacia su padre, que hará que la vida de Martín se convierta en un calvario. Al mismo tiempo, el protagonista se ve atraído por una vieja mansión vecina a la de su nuevo patrón, curiosidad que le llevará a descubrir los sorprendentes e insólitos misterios que encierra entre sus paredes.

El perfil psicológico de los personajes es muy rico en matices: todos ellos tienen sus luces y sus sombras.

Si algo quería conseguir desde el principio eran personajes lo más reales posibles, malos y buenos, ricos y pobres, todos ellos con sus propios fantasmas e inquietudes. Todos son supervivientes de la guerra, hecho que interfiere drásticamente en sus vidas, aunque para cada uno de ellos de forma diferente. Las experiencias sufridas durante la guerra son también determinantes en la psicología de la mayoría de ellos y, sin reconstruir estas vivencias personales de cada uno, creo que no se llegaría a entender bien sus aptitudes y formas de pensar.

HAIZEA ELUSTONDO
Periodista

Informazio gehiago:
<http://bit.ly/memoria-de-las-sombras>



David de Jorge y Martín Berasategui nos proponen la dieta más sabrosa

EFICACIA PROBADA POR EL PROPIO DAVID DE JORGE

MÁS DE 100 RECETAS ADELGAZANTES PERO SABROSAS

DAVID DE JORGE MARTÍN BERASATEGUI



INFO +: WWW.ELKAR.EUS/ARETOA

Agenda osoa eskura:



www.elkar.eus/aretoa



Urria / Octubre:

02 – 19:00H:

Bilbo (Licenciado Poza, 14):

“¿Cómo votamos en los referéndums?”
• Liburu aurkezpena / Presentación del libro
• Idazleak / Autores:
Braulio Gómez eta Joan Font

03 – 18:00H:

Donostia (Fermin Calbeton, 21):

Euskal Irudigileen Elkartearen
hitzaldia: Leire Salaberria /
Charla de la Asociación Profesional
de Ilustradores de Euskadi: Leire
Salaberria

10 – 19:00H:

“Un otoño en California”
• Liburu aurkezpena / Presentación del libro
• Idazlea: Noemí Rivera

10 – 19:00H:

Baiona (Arsenal plaza):

Jose Arregiren
“Nazareteko Jesus” liburua
• Hitzaldia / Charla

11 – 12:00H:

Irripuinak Irrien Lagunekin
• Haurrentzako ikuskizuna / Espectáculo infantil
Donostia: **Tiritatxo** - Bilbo: **Largabista** * - Gasteiz: **Ane Pirata**
Iruñea (Larraona): **Martin Bertso** - Baiona (17.00H): **Tiritatxo**

* Izena eman behar da / Es necesario inscribirse

Azaroa / Noviembre:

08 – 12:00H:

Sentosphere etxeko
Aquarellum tailerra
• Haurrentzako tailerra / Taller infantil.
• Aretoak: **Donostia, Bilbo,**
Gasteiz, Iruñea (Larraona)

22 – 16:30H:

Baiona (Arsenal plaza):

Gaby Duplantier autorearen
“Volta” argazki liburua.
• Sinaketa / Firma

Abendua / Diciembre:

06 – 18:00H:

Baiona (Arsenal plaza):

Alain Gardinier autorearen
“Punk sur la ville”
musikari buruzko liburua
• Liburuaren aurkezpena eta akustikoa /
Presentación del libro y acústico


LA NUEVA Y ESPERADA NOVELA DE MILAN KUNDERA

Toda la biblioteca del autor en www.tusquetseditores.com

«¡Qué libro! ¡Qué prosa llena de dobles sentidos,
capaz de provocar que al lector se le haga un nudo
en la garganta al tiempo que estalla en carcajadas!»

– Marc Fumaroli, *Le Figaro Littéraire*

TUSQUETS
EDITORES



KEN FOLLETT



THE CENTURY

(Plaza & Janes):

- *La Caída de los Gigantes*
- *El invierno del Mundo*
- *El umbral de la eternidad*

Sus novelas son auténticos fenómenos de ventas, y Ken Follet (Cardiff, 1949) se siente satisfecho. Disfruta de sus éxitos y no lo oculta. Acaba de publicar *El umbral de la eternidad*, la última entrega de la trilogía *The Century*, una proeza literaria que pretende narrar la historia del siglo XX. Miles de páginas en las que ha vertido grandes dosis de ambientación épica y drama humano, para contar las vicisitudes de tres generaciones de cinco familias.



Bere karrerako proiektu handinahiena amaitutzat eman du bere nobelen 100 milioi aletik gora saltzen dituen idazleak: XX. mendeko historia kontatzea. Hiru liburu behar izan ditu horretarako: *Fall of Giants* (2010. Gaztelaniaz, *La caída de los gigantes*), *Winter of the World* (2012. Gaztelaniaz, *El invierno del mundo*) eta *Edge of Eternity* (2014. Gaztelaniaz, *El umbral de la eternidad*). *The Century* trilogian bost familiatako hiru belaunaldiren bizipozak isuri ditu. Aukeratutako sendiek Estatu Batuak, Errusia, Alemania, Ingalaterra eta Gales dute sorterrri, eta azken mendean historiak jaurtitako jazoera suntsitzailenekin bizikide izatea suertatu zaie.

Lehenengo bi aleek izugarriko arrakasta izan zuten mundu guztian, eta hirugarrenarentzat ere antzerako patua espero da. Ospea maite du Ken Folletek. Behin baino gehiagotan azaldu du dirua ez zaiola batere axola, eta egungo egoerara heltzeko lan handia egin behar izan duela. Gauzak ongi egitea gustatzen zaio, eta ez da txikikerietan ibili. Kazetari izateari bere burua erreportari kaskartzat zuelako utzi zion. Bera,

nabarmena izan nahi zuen bere lanean, eta aldarre horrekin ekin zion idazle ospetsu izatearen ametsa harrapatzeari. Baita lortu ere.

Espioitza liburuak izan ziren bere lehen saiakerak: *Eye of the Needle* (1978. Gaztelaniaz, *El ojo de la aguja*), *Triple* (1979), *The Key to Rebecca* (1980. Gaztelaniaz, *La clave está en Rebeca*), *The Man from St. Petersburg* (1982. Gaztelaniaz, *El hombre de San Petersburgo*) eta *Lie Down with Lions* (1986. Gaztelaniaz, *El valle de los leones*). *On Wings of Eagles* (1983. Gaztelaniaz, *Las alas del águila*) liburuan 1979ko iraniar iraultzan girotutako istorioa kontatu zuen. Sei urte beranduago, 1989an, Erdi Aroko katedral baten eraikuntza oinarritzat zuen *The Pillars of the Earth* (Gaztelaniaz, *Los pilares de la Tierra*) nobelarekin heldu zitzaion, behingoz, desiraturako ospea. Jada 18 milioi kopia baino gehiago saldu dituen liburu honi *Night Over Water* (1991. Gaztelaniaz, *Noche sobre las aguas*), *A Dangerous Fortune* (1993. Gaztelaniaz, *Una fortuna peligrosa*) eta *A Place Called Freedom* (1995. Gaztelaniaz, *Un lugar llamado libertad*)

nobela historikoek jarraitu zioten. *The Third Twin* (1996. Gaztelaniaz, *El tercer gemelo*) thrillerra 1997an mundu mailan gehien irakurritako bigarren liburu izatera iritsi zen.

The Hammer of Eden (1998. Gaztelaniaz, *En la boca del dragón*) suspentse istorioaren ondoren *Code to Zero* (2000. Gaztelaniaz, *Doble juego*) thrillerra plazaratu zuen. Bigarren Mundu Gerrara itzuli zen *Jackdaws* (2001. Gaztelaniaz, *Alto riesgo*) eta *Hornet Flight* (2002. Gaztelaniaz, *Vuelo final*) nobelekin. Hauen ostean *Whiteout* (2004. Gaztelaniaz, *En el blanco*) idatzi zuen, eta hiru urte beranduago, 2007an, *Pillars of the Earth* (gaztelaniaz *Los pilares de la Tierra*) liburua jarraipena: *World Without End* (Gaztelaniaz, *Un mundo sin fin*). Egunotan, bere azken lana liburu dendetako erakuslehoietan ikusten dugunoi zaila egiten zaigu idazlearen sorlekua imajinatzea: irratia, telebista eta zinea debekatuta zituen familia xume eta fededuna. "Liburutegi publikoetan eskuratzen nituen liburuei esker egin nintzen irakurle sutsu, eta irakurle izan ez banintz ezin izango nintzateke inoiz idazle bilakatu", azaltzen du sortzaile galestarrek bere webgune ofizialean.

LIBURUTEGIAN HEZITAKO IDAZLEA

¿Qué le motivó a narrar la historia del siglo XX?

Quería escribir sobre nuestro pasado más inmediato, sobre acontecimientos históricos que han marcado nuestras vidas, así como las de nuestros padres y abuelos. Y no podía hacerlo en un solo libro, hacía falta una trilogía.

Un raudal de páginas que nacen en la Primera Guerra Mundial para desembocar en las convulsas últimas décadas del siglo, pasando por la Revolución Rusa, la Gran Depresión o la Segunda Guerra Mundial. La labor de documentación le habrá llevado mucho tiempo, y mucho esfuerzo también.

Ha sido duro, pero también fascinante. Creía saber muchas cosas sobre el siglo XX, pero he aprendido mucho más durante el proceso de documentación. He leído muchos libros al respecto, y también me he dedicado a viajar. Quería sentir los lugares sobre los que escribía y conocer a algunas de las personas que fueron testigos de los acontecimientos que aparecían en la novela. Pasamos mucho tiempo en América, en Washington y en el sur de Estados Unidos.

¿Asumió este reto como una forma de acercar la Historia Universal al lector? ¿Una vía para concienciar a los ciudadanos sobre la intensidad de su pasado reciente?

Quería contar una buena historia; una historia que los lectores disfrutaran y quisieran leer.



Logra cristalizar sus novelas en auténticos fenómenos de ventas. ¿Es ese el objetivo que persigue? Cualquier escritor quiere que la gente compre y disfrute leyendo sus libros. Trabajo muy duro y concibo mis libros pensando en mis lectores, y en si les van a gustar. Siempre intento contar una historia lo mejor posible.

En alguna ocasión ha mencionado que dejó el periodismo por la literatura porque era un reportero "normal que nunca iba a destacar". ¿Imaginó, al escribir sus primeras novelas, que llegaría al lugar donde está ahora? ¿Se siente satisfecho?

No, no lo creo. Y sí, definitivamente disfruto de mi éxito.

¿Cuándo supo que quería ser escritor?

